

LA CASILLA. Urriak 24. MITXEL LAKUNTZA

1. PALESTINA

Irmoki, gure indar guztiekin Israelgo armada gauzatzen ari den genozidioa salatu nahi dugu. Europan egindako bonba eta misilek erahiltzen dituzte Gaza, Zisjordania eta Libanoko milaka ume. Israelekiko aldebiko harremanak eta erlazio komertzialak eten behar dira. Palestinaren askatasuna aldarrikatu nahi dugu; bai, ibaitik itsasora.

Gure hautu internazionalista berretsi nahi dugu. Inperialismo, militarismo, eta supremazismoaren aurrean, herrien arteko adiskidetasuna, bakea eta langile klasearen elkartasuna defendatzen dugu.

2. ABERASTASUNAREN BANAKETA

Aberastasunaren banaketa da sindikatuaren estrategiaren erdigunean dagoen auzia. Sindikalismoaren borroka historikoa da hau, sortzen den aberastasuna nola banatzen den.

Bide ezberdinetatik egin daiteke. Esate baterako, hori da sektore eta lan zentruetan negoziazio kolektiboaren bitartez egiten duguna, enpresen etekinetatik zer zati datorren soldatetara.

Beste bide bat da, legearen bitartez gutxiengo soldata bat ezartzea. Negoziatio kolektiboa ez da borroka neutro bat: gu gara negoziazioko alde ahula; horregatik eskatzen diegu gobernu eta alderdiei esku har dezatela, borroka hori orekatzeko eta gutxiengo soldata bat lege ezartzeko.

Esku hartze politikoa da ere bestelako fiskalitatea lortzeko eskatzen ari garena. Fiskalitea da gizarte berdintsuago bat eraikitzeko tresnarik garrantzitsuenak; hortik abiatzen dira bestelako aurrekontu batzuk egiteko aukera.

Sobera dakigu aberastasunaren banaketaren borroka ez dela pazifikoa. Gai gatazkatsua da, interes ezberdinak daudelako, klase ezberdinen interesak. Eztabaida gatazkatsua da, pribilegioak dauzkaten horiek ez diotelako egoera horri uko egin nahi.

Funtsean, etekin handiak dituzten enpresek, ondare asko dutenek, errentistek... ez dute zergarik ordaindu nahi. Enpresek inoizko etekin handienak lortzen ari diren urteetan ez dute apenas zergarik ordaintzen.

Urtetik urtera, Hego Euskal Herrian dugun sistema fiskala gero eta injustuago da.

Gutxi biltzen delako eta biltzen dena, enpresa eta gehien dutenek jarri beharrean, langileon kontura biltzen delako.

Eztabaida honetan ez gara gu irabazten goazenak. Horregatik, Ezkerrak ezin du hitz egin irabazten ari bagina bezala. Ez da langile klasea irabazten doana. Hau aitortzea ezinbesteko abiapuntua da.

3. POLITIKA EGITERA GATOA

Politika egitera gatoz, Iberdrolak, Petronorrek edo Confebaskek egiten duten bezalaxe. Baina hain zuzen kontrako aldera.

Politikan sinesten dugu, batez ere gaur egiten ez den politika horretan. Politika bizi-baldintzak hobetzeko tresna dela sinesten dugu; arazoa da gaur politikaren lehentasuna beste bat dela: botere ekonomikoari eta enpresei trabarik ez jartzea.

Batzuek diote ez garela **nor** politikaz mintzatzeko. Herri honetako sindikatu nagusiak politikaz hitz egin ezin badu, nahiz eta 104.000 afiliatu izan, % 40ko ordezkaritza Araba, Bizkai eta Gipuzkoan eta % ia 23 Nafarroan... Orduan, nork du politikaz jarduteko eskubidea?

Horregatik, gaur **proposamen politiko** bat egitera gatoz: Bi puntuko proposamen politiko bat, aberastasunaren banaketa justuagoa izan dadin. Zer nahi dugu? Lehenik, gutxieneko soldatari buruzko eskumena lortu eta Euskal Herrian 1.795 euroko gutxieneko soldata ezar dadila eragin. Bigarrenik, zerga-erreforma bat arurera eraman iruzurra amaitzeko eta gehien dutenei gehiago ordainarazteko.

Proposamen honek gure herriko alderdi politikoak interpelatu nahi ditu; hemen ezin da ekidistantzia bilatu: soldatak hobetzeko eta aberastasunaren banaketa justuagoa lortzeko ahaleginik gabe ezberdintasuna gero eta handiagoa izango da gurean.

4. GOBERNUEN ARDURA

Araba, Bizkai eta Gipuzkoan dugun zerga-sistema injustua da eta diru-bilketa urria lortzen du. Hau horrela da aspaldiko urteetan hemen agindu duten alderdiek hala nahi izan dutelako. Gobernuen eta patronalaren arteko aliantzaren emaitza da.

Galdetzen digute **Pradales Lehendakari**aren politikan aldaketarik ikusi ote dugun. Zer nolako aldaketez ari dira? Oraingoan, irudia eta formak gorabehera, ez da aldaketa handirik nabari.

Josu Jon Imazek dioenez, bere enpresak etekinen zergatan %10 ordaindu beharko balu milaka lanpostu eta inbertsio handiak arriskuan egongo lirateke.

JOSU JON IMAZen, plana, hala diote REPSOLen webgunean, akziodunen artean 10.000 milioi euro banatzea, dibidendo eta akzio berrerosketak medio. Horrek, antza, ez dauka inolako eragin txarrik ez enpleguan, ez eta inbertsioan ere.

Lehendakari, ez ezazu loa galdu enpresa handien desioekin, eta kezka zaitez gutxienez etekinen % 25 ordain dezaten; orain arte baino ekarpen askoz handiagoa egin dezakete, eta egin behar dute zerga-bilketan.

Batek batek uste du gobernu honek **etxebizitzari** buruz fundamentuzko ezer egingo duela? Sozio nagusiak, EAJk, etxebizitza legea bera ere ez du aplikatu nahi, honek errenten prezioak mugatzeko erabakiak hartzeko aukera emango lukeen arren.

Behar bada, esango du jendeak bere artean, izango da indar guztia gure arazo handienetako bat konpontzen saiatzen ari direlako; Osakidetza konpontzen, alegia. Baina horretan ere ez dira ari. Ba al dakizue zein izan den hartu duten erabaki nagusia? Mahai bat eratzea.

Mahai horri buruz pista batzuk eman dizkigute: “Osasunaren aldeko ituna” izena eman diote, ez “osasun publikoaren aldeko ituna”; PP eta Confebask gonbidatu dituzte... Baina funtsezko datua da ez dutela asmorik **Osakidetza** behar duen aurrekontura hurbiltzeko; ez da ahaleginik egingo. Gainera, sektoreko mahaia baztertu egiten dute eta proposamen sindikalei entzungor egiten diete. Benetan, ez da besterik jakin behar erabakitzeko ez dagoela benetako asmorik. Ikusi duguna aski da.

Osasungintza publikoaren gainbehera aipatzen hasi da sindikatuok greba egiten hasi garenean; erabiltzaileek ere protesta kalean egin dutenean... Isilik geratuz gero, ez omen dago arazorik. Baina ELA ez da isilik egongo, Osakidetzaren arazoa ezin baita konpondu langileen baldintzak hobetu gabe; lanpostu egonkorak behar dira, langile gehiago behar dira. Eta Osakidetzako langile guztien baldintzak hobetu.

Horregatik, Osakidetzako ordezkari guztioi osasun sistema publikoa hobetzeko egiten ari zareten borroka sindikalean aitzindari izateagatik; behar larriena izan denean burua altxa duzuelako langile guztiak defenditzeko, ez bakar batzuk.

Eta lan handi hori aitortzeko modu hoberik ez dago botoa eskatzea baino: Gaur hemen zaudeten askok izango duzue Osakidetzan lan egiten duen lagun edo senideren bat; eska iezaiezue botoa ELAri emateko, hori baita gure osasungintzan lan-baldintzak eta zerbitzua hobetzeko modurik onena.

Bestalde, halako mahaien berri ere badugu **Nafarroan**. Zerbait egin nahi ez denean mahai bat eratzen da edo azterketa bat agintzen da jendea entretenitzeko. Datorren urtean hamarkada beteko da UPN gobernutik atera zenetik. Beraz, une egokia dugu gogoeta zintzoa egiteko Nafarroako zerga- eta aurrekontu-politikaz.

Gure ustez, hari buruzko ondorio bat nabarmena da: sakoneko politika ez da aldatu, besterik gabe egin diren aurrekontuek oro har UPNk irekitako bidetik jarraitu dutelako.

Agintean dauden alderdi batzuek esaten dute, grebetan aldarrikapenak egiten ditugunean, esaterako hezkuntzan, zahar-etxeetan, baita greba feministan ere, gurekin bat datozela. Orduan, zergatik ez dute erabaki bat ere hartzen aldarri horiek gauzatzeko? Hitzetik ekintzetara pasa behar da, eta Nafarroan hori orain arte ez da gertatu.

5. EZKERRAREN PAPERA

“Non dago ezkerra?”, galdetzen diogu gure buruari, non dago bide-orri alternatibo bat egungo politika neoliberal hauei? Kezkatuta gaude, esate baterako, Gipuzkoan fiskalitatean EAJ, PSE, eta EH Bilduk akordio bat lortu dutelako.

Eredugarri gisa aurkezten den akordio horrek bi ezaugarri nagusi ditu, hiru alderdiek ontzat ematen dutela modu orokorrean orain arte egindakoa eta, bestalde, neurriak aipatzerakoan ez dute inongo konpromisorik lotzen.

Horrelako akordioekin aberastasuna banatzeari uko egiten zaio, uko egiten zaio ere zerbitzu publikoentzat baliabide gehiago lortzeari. Eztabaida fiskala da hein handi batean ezkerra eta eskuina desberdindu beharko lukeena; horregatik, adostasun hau ez da albiste on bat bestelako eredu fiskal baten alde gaudenontzat.

Gure ustez Hego Euskal Herriko instituzioetako ezkerra, EH Bildu, Sumar edo Contigo Zurekin, sistema fiskal injustu bat xamurtzen ari dira, xamurtzen ari dira, uko egin diotelako egungo sistema fiskal injustu hau aldatzeari.

Ezkerrak alternatiba bat eraikitzeko egon beharko luke, norabide bat ezartzeko, ez eskuinaren programa erosteko.

6. GURE PAPERA. Interpelazio politikoa eta mobilizazioa

Konfrontaziorako prest ez bazaude ez dago lorpenik. **Negoiazio kolektiboaren irakaspena** argia da. Ezin da aberastasuna banatu borrokatu gabe. Horregatik, gaur gaurkoz, aberastasuna banatzen ez duen sistema fiskal baten aurrean, grebak bilakatu dira herri honetan aberastasuna banatzeko tresnarik eranginkorrena.

Egunotan galdetzen digute zergatik ez dagoen apenas grebarik. Egon badaude, baino gutxiago dira. Albiste on batengatik: aurreko hilabete eta urteetan egindako greba kopuru altu horren ondorioz, aspaldian lortzen ez genuen hitzarmen kopurua lortu dugulako. Hitzarmen gehiago eta hobeak.

Egungo errealitate injustua ezbaian jartzeko gaude. Jendearen haserreari, egonezinari bide bat emateko, erantzun kolektiboa antolatzeke gaude.

Oso kontziente gara kontrakorrantean ari garela, baina hori da biderik zintzo eta eraginkorrena. Ez gaituzte aurkituko ez mahai, ez adostasun hutsal eta antzuetan.

Badakigu soilik irabazten dugula antolatzen garenean, mobilizatzen garenean eta sindikalismoaren erroetara bueltatzen garenean; elkartasunera, klase konzientziara eta borroka sindikalera.

Okerrenen dauden eskubideak gure estrategiaren erdigunean kokatzen ditugunean, borroka antirrazista, borroka feministaren alde egitea da eskuin mututurraren oldarraldiari aurre egiteko bidea.

Deialdi batekin bukatu nahi dut, ELAko militante guztientzako deialdia: Abenduaren 13an Iruñean eta 14an Bilbon kalera atera nahi dugu. Aldundietan hurrengo urteetarako fiskalitatea itxi nahi dute. Noren alde egingo den da jokoan dagoena, pribilegiatuen onurak mantendu edo langileen alde egin. Aldundiak, alderdi politikoak interpelatu nahi ditugu, aberastasuna banatzea nahi dugulako.